

Malta

MALTA

Familia/Apartamentua

+18 URTE | URTE OSOAN

Malta uharteak, Mediterraneoaren muinean kokaturik, klima bikaina du, eta historiaz beteta dago. Edertasun naturala, ur gardenak, bista ikusgarriak eta kale malkar xarmaz beteak... Gainera, Game of Thrones telesailaren fan bazara, sailaren agertoki naturalak ezagutzen gozatuko duzu: saga ospetsuaren urratsak bilatu eta jarraitzeko hamar kokaleku baino gehiago.



IKASTAROAK

Eskola, urte osoan irekita, Maltako eremu kosmopolitenetako batean kokatzen da: **Triq id-Dragunara, St Julian's**. Tamaina txikikoa da, eta horrek aukera ematen du ikasle guztiak izenaz ezagutzeko. Ikasgela erosoak ditu, ongi argiztatuak, aire girotuz, arbel interaktiboz eta wifiz hornituak, eta astero egiten dira ikasleentzako jarduerak.

Gutxieneko adina: 18 urte

Maila: maila guztiak

Ikasgelako gehieneko ikasle kopurua: 15

1 ikasgai = 45 minutu

Material didaktikoa barne da

Jaiegunak: martxoaren 29a, abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a

Udako gehigarria: ekainaren 1etik abuztuaren 31ra

General English

Ingeles orokorreko 20 ikasgai astean, astelehenetik ostiralera, goizeko edo arratsaldeko orduategian

Beste ikastaro batzuk

Astean 10 edo 30 ikasgai

DATAK ETA IRAUPENA

Hasiera-eguna: astelehen guztiak

Gutxieneko iraupena: astebete (1)

MALTAKO AIREPORTUKO JOAN-ETORRIAK

Ibilbideko prezioa: 25 €

PREZIOA (€)

	1 ASTE	2 ASTE	3 ASTE	4 ASTE
General English	335 €	495 €	655 €	815 €
General English (uda)	400 €	625 €	850 €	1.075 €
Familia	425 €	845 €	1.265 €	1.685 €
Familia (uda)	565 €	1.125 €	1.685 €	2.245 €
Apartamentua	495 €	985 €	1.475 €	1.965 €
Apartamentua (uda)	775 €	1.545 €	2.315 €	3.085 €



OSTATUA

Iristeko eguna: larunbata edo igandea

Irteteko eguna: larunbata edo igandea

Udako gehigarria: ekainaren 1etik abuztuaren 31ra

- Familia: logela indibiduala, mantenu-erdia, gehienez ere eskolatik 20 minutura oinez
- Apartamentua*: erabilera indibidualakoa, sukaldearekin eta bainugelarekin. Eskolatik 5 minutura oinez

* Hilabete batzuk lehenago erreserbatzea komeni da

